

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala****Telelanaren araudiaren behin betiko onarpena**

2024ko azaroaren 28ko Osoko Bilkurak telelanaren araudian 2., 5. eta 8. artikulua aldatzea hasikeraz onartu ondoren, eta 2025eko urtarrilaren 20an argitaratu zen Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 12. zenbakian. Argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita hogeita hamar (30) eguneko epea ireki zen edozein pertsona fisikok edo juridikok egoki iritzitako erreklamazioak eta iradokizunak egin ahal izateko. Entzunaldi epean alegaziorik aurkeztu ez denez, araudia behin betiko onartutzat eman da, araudia indarrean sartzeko bere testu osoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu behar izatearen kalterik gabe (Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 49.c) artikulua).

Bermeon, 2025eko martxoaren 26an. —Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly

**BERMEOKO UDALEKO LANGILEEK ZERBITZUA TELELANAREN BIDEZ
LANTOKIAN BERTARATU GABE EMATEARI BURUZKO ARAUDIA**

Bermeoko Udalaren zerbitzura ari diren langileen Lan Baldintzak Arautzen dituen akordioaren 21. artikulua, aukera ematen du zerbitzu jakin batzuetako ordutegian malgutasun handiagoa izateko neurri batzuk adosteko langileen ordezkariarekin, baldin eta zerbitzu horien kalitatea ez bada txikitzen eta beharrezko kudeaketa eta kontrol tresnak bidera badaitezke.

Lan inguruko kontzeptu eboluzionatu eta gaurkoa da bertaratu gabeko lanaren irudia, horretan lehentasuna ematen zaio enplegatu publiko bakoitzaren eginkizunak modu arduratsuan bideratzeari eta helburu korporatiboak gauzatzeko egiten den ekarpenari, lanpostuan egote hutsa ziurtatzeko edozein neurriren gainetik. Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berrien garapenak aukera ematen du, inolako zalantzarik gabe, zerbitzua emateko orain arte ezagutzen direnak ez bezalako beste modalitate batzuen bidez.

Horren harira, ez da ahanzi behar, Herri Administrazioa den aldetik, Bermeoko Udalak betebeharrak berezia duela norberaren bizitza, familia eta lan bizitza uztar daitezen bermatzeko edozein neurri sustatzeko orduan. Gainera, norberaren bizitza, familia eta lan bizitza uztar daitezen lortzeko neurri horiek hartzen badira, azken batean, produktibitate maila handiagoa lortuko da lanean, enplegatu publikoak motibatuagoak egongo direlako eta, azkenean, ekarpen handiagoa egingo zaio interes orokorrari.

Hori dela eta, jakiterik badago urruneko lana edo telelana bezalako ekimenek lagunduko dutela Administrazioa modernizatzen eta herritarrei kalitate handiagoko zerbitzuak eskaintzen, erakunderako abantaila nabaria baitakartza aukera horrek, haren zerbitzura ari diren langileen eraginkortasuna handituz.

Eta ildo horretan, araudi honek urriaren 1eko Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legearen 129. artikuluan ezarritako beharrezkoak, efikazia, proportzionaltasuna, segurtasun juridikoa, gardentasuna eta efizientzia printzipioak betetzen ditu.

1. artikulua. — Xedea

Akordio honen xedea da udal langileek Bermeoko Udaleko esparru eta zerbitzu desberdinetan eman behar duten bertaratu gabeko zerbitzua, telelanaren formularen bidez, nola eman arautzea.

2. artikulua. — Telelana kontzeptua

1. Zerbitzuak emateko modalitate bat da telelana, udal enplegatuei beren lanpostuen eginkizunak Bermeoko Udaleko egoitzetatik kanpo betetzeko aukera ematen diona, informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak erabilita edo horretarako prestatuko diren beste tresna baliabide batzuen bidez.

2. Telelanaren helburua da zerbitzuen prestazioan eraginkortasun handiagoa lortzea, teknologia berriak erabiliz lana hobeto antolatuta eta lana helburuen arabera kudeatuta, eta norberaren bizitza, familia eta laneko bizitza ondo uztartzen laguntzea, lanean gusturago aritu ahal izateko.

3. Zerbitzuak emateko modalitate hau borondatezkoa izango da udal langileentzat, eta hautatzen dutenentzat bermaturik egongo dira laneko arriskuen prebentzioa, gizarte segurantzaren, pribatutasuna eta datuen babesa eta isilpekotasuna direla-eta ezarri beharreko baldintza guztiak.

4. Salbuespenezko kasuetan, hala nola, larrialdi egoerak, osasun egoerak, berrantolaketa egoerak, telelan modalitatearen bidez jarduteko lanpostuetan, telelana egitera derrigortu ahalko du Udalak. Derrigorrezko telelanaren iraunaldia salbuespenezko egoerarena berarena izango da gehienez eta, ahal den bezain laster, normaltasunera itzultzeko neurriak ezarri beharko dira.

**3. artikulua. — Aplikazio esparrua**

Akordio hau Bermeoko Udaleko langileei aplikatuko zaie, langile horiek lan-kontratudunak nahiz funtzionarioak izan.

Era berean, beren enplegu harremanaren izaerarekin bateragarria den guztian, aplikatu egingo zaie bitarteko funtzionarioei eta praktiketan ari diren funtzionarioei, eta baita iraupen jakin bat duen edozein kontratu modalitatearen bidez kontrataturiko lan- kontratudunei ere. Era berean, behin-behineko langileentzat izaera osagarria izango du haien harreman juridikoaren izaerarekin bateragarria den guztian.

Araudi honen indarraldia etengabekoa izango da.

4. artikulua. — Baldintzak

1. Zerbitzua bertaratu gabeko modalitatean emateko eskaera egin ahal izango dute araudi honen aplikazio esparruan sartzen diren enplegatu publikoek, baldin eta baldintza hauek betetzen badituzte:

- a) Zerbitzu aktiboan egotea eta azken bi urteetan bertaratu gabeko formularen bidez bete nahi duten lanpostuan gutxienez urtebete egin izana, zerbitzua telelanaren bidez ematen hasten diren egunean.
- b) Bertaratu gabeko modalitatean betetzeko modukoa den lanpostu batean aritzea. Ondorio horietarako, telelanaren modalitatean bete daitekeen lanpostutzat joko dira honako eginkizun nagusi hauetakoren bat dutenak:
 - Proiektuak aztertu eta analizatzea.
 - Txosten tekniko, ekonomiko edo juridikoak egitea.
 - Aholkularitza.
 - Dokumentuak idatzi, zuzendu eta erabiltzea.
 - Datu-baseak edo informazio- bildumak mantentzea.
 - Testuak eta dokumentuak itzultzea.
 - Lantokian bertan egin behar ez den ikuskatze lana.
 - Informazio eta komunikazio sistemak kudeatzea.
 - Informazio eta komunikazio sistemak aztertzea, diseinatzea eta programatzea.
 - Giza Baliabideen ordezkartzaren iritzi, telelanaren modalitatearen bidez betetzeko modukoak diren beste eginkizun batzuk.Inolaz ere ez dira onartuko honako ezaugarri hauek dituzten lanpostuetan ari diren enplegatu publikoen eskaerak:
 - Erregistro bulegoetan eta herritarrei arreta eta informazioa eskaintzeko bulegoetako lanpostuak.
 - Bertaratutako zerbitzuak ematea nahitaezko eginkizuntzat daukaten lanpostuak. Bertaratutako zerbitzutzat joko dira, enplegatutako pertsonaren presentzia fisikoa eskatzen dutenak ezinbestean, zerbitzu horiek egiaz ematen direla guztiz bermatuko bada.
- c) Lanaldi osoan edo gehienez ere bosten bateko murrizketarekin jardutea edo horretarako baimena izatea, lana bertaratu gabeko modalitatean egiten den bitartean.
- d) Beren lanpostuaren eginkizunak telelanaren modalitatearen bidez garatzeko beharreko ezagutza informatikoak eta telematikoak, teorikoak nahiz praktikoak, izatea.
- e) Telelana egiteko lekuan, telelanaren modalitatea hasten duten egunean, lana behar bezala egiteko komunikazio sistema egokiak izatea, edo sistema horiek eskuratzeko konpromisoa hartzea; betiere udalak zehaztutako ezaugarriak dituzten komunikazio sistemak izan behar dituzte, teknologiak eskaintzen duen aukeraren arabera eta sistemen segurtasunaren arabera.



- f) Udalak erabakitzen dituen prestakuntza ikastaroak gainditzea honako alor haue-
tariko batean: osasunaren babesa; laneko arriskuen prebentzioa lanpostuan;
datu pertsonalen babesa; helburuen kudeaketa eta ebaluazioa, eta adierazleak
eta espero diren emaitzak prestatzeari dagokionean ere.
- g) Lana bertaratu gabeko modalitatean egin behar duten lanorduetan iraupen luze-
ko aurrez aurreko ikastaroak egiten ez ibiltzea edo horrelako ikastaroak egiteko
baimena ez izatea. Ikastaro horiek euskara ikastaroak badira eta telelana egiten
den herritik hurbil ematen badira, eskaria ez da ezetsiko.
- 2. D) puntuan jasotako ezagutza egiaztatzeari dagokionean, salbuespen gisa eska-
tu liteke proba bat gainditzea. Eskaerarekin batera, e) puntuan jasotako baldintza bete-
tzen dela egiaztatzen duen dokumentazioa edo zinpeko adierazpena aurkeztu beharko
da.
- 3. Zerbitzua bertaratu gabeko modalitatean ematen duen denbora guztian zehar
bete beharko ditu enplegatu publikoak artikuluko honetan ezarritako baldintzak.

5. artikulua. — Bertaratu gabeko ordutegia baimentzeko prozedura

- 1. Zerbitzua bertaratu gabeko lan modalitatean emateko baimen eskaerak Langi-
leria Sailera bidali behar dira, eta sail horrek egiaztatuko du araudi honetan jasotako
baldintzak betetzen direla.
- 2. Eskatutako baldintzak betetzen dituzten eskaerak, eskaera horiek egin dituzten
pertsonak atxikita dauden arloei edo zerbitzuei bidaliko zaizkie, eta horiek gehienez 10
laneguneko epea izango dute eskariari buruzko txostena egiteko. Arloek edo zerbitzuek
zerbitzua bertaratu gabeko lan modalitatean emateko baimenaren aldeko iritzia ematen
dutenean, jakinaraziko dute halaber, lanpostu bereko edo eskatzaileak betetzen due-
narekin zuzenean lotutako beste hornidura batzuekin atxikita egonda, beren unitateko
zenbat enplegatu ari daitezkeen gehienez telelanean aldi berean. Era berean, arloak
edo zerbitzuak egindako txosten horretan azalduko da pertsona interesatuarekin adostu
diren lan helburuak, geroago telelanak irauten duen bitartean helburu horiek zabaldu edo
aldatu ahal izango badira ere.
- 3. Aurreko puntuan xedaturikoaren aldi berean, Informatika Zerbitzuari eskatuko
zaio 10 laneguneko epean egiteko, baliabide telematikoen beharrei eta eskatzaileak pro-
posaturiko telelanerako lekuaren konektibitatearen bideragarritasunari buruzko txosten
teknikoa. Txosten horretan aztertuko da halaber, zein aukera dauden konexio hori erabi-
liz eta horretarako eskatutako prestazio teknikoak baliatuz eginkizunak betetzeko.
- 4. Eskaera aurkezten denetik hasi eta hilabeteko epean, eta udal enplegatua atxi-
kita dagoen arloak eta Informatika Zerbitzuak egindako txostenak ikusirik, langileria-
ren alorrean eskumena duen organoak telelanaren eskaera baimentzeko edo ezesteko
ebazpen arrazoiak emango du.
- 5. Antolakuntza arrazoiak direla medio, udalak deialdiak egin ahal izango ditu, eta
bertan zehaztuko du eskaerak noiz aurkeztu behar diren, haiei buruz noiz ebatziko den
eta zerbitzua bertaratu gabeko modalitatean emateko modua noiztik hasiko den, eta epe
horiek bat etor daitezke urte naturalarekin.
- 6. Eskaera egin duen pertsonak lehenago ere eman izan baditu zerbitzuak bertara-
tu gabeko lan modalitatean lanpostu berean, aurreko paragrafoetan zehaztutako txosten
horiek aurreko prozeduran egindakoak berresteko izango dira, eta 5 eguneko epean
egingo dira, zerbitzuaren beharrak betetzeko moduan edo baliabide telematikoen eta
konektibitatearen bideragarritasunaren alorrean dauden beharretan aldaketak izan dire-
nean izan ezik. Kasu horretan artikuluko honen 2. eta 3. ataletan xedaturikoa beteko da. 15
eguneko epean emango da ebazpena.
- 7. Premiatasunaren ondorioz telelanean aritzea atzeraezina denean, hala nola, gai-
xotasun egoera, atzeraezina den lana eta familia uztartzeko beharrezina, bestelako lege
betebeharrak, atzeraezina den lan batek bertaratuta bermatzen ez duen kontzentrazio
berezia eskatzen badu, edo antzeko eta justifikatutako egoerak, sailburu tekniko eta
politikaren onepenenarekin baimendu ahal izango da, salbuespen moduan.



8. Salbuespenezko kasu horietan, mediku egiaztagiria, hezkuntza zentroetako egiaztagiria edo lege betebeharra justifikatzen duten egiaztagiria aurkeztu beharko da, ahal dela, telelanarekin hasi baino lehen eta, edozein kasutan, posible den bezain laster. Kontzentrazioa eskatzen duen eta atzeraezinak diren lanen kasuetan, horrela adierazten duen sailburuaren txostena bidali beharko da Langileria Sailera telelanarekin hasi baino lehen, ahal dela, edo hurrengo egunean beranduen jota.

9. Ez da derrigorrezkoa izango prozedura betetzea, baina bai beharko da egokia den ebazpena hartzea, 2.4. atalean zehaztutako telelana egiteko derrigortasuna ezartzen denean. Ebazpen horretan, ahal den heinean, derrigortutako telelanaren iraunaldia zehaztuko da eta, iraunaldia zehaztea ezinezko balitz, iraunaldia amaitzeko bete beharreko baldintzak jasoko dira.

Ebazpena, dagozkion errekurtsoekin, eragindako langileei jakinaraziko zaie telelanaren indarraldia hasi aurretik.

6. artikulua. — *Baimena emateko lehentasun irizpideak*

1. Lan unitate berean hainbat udal enplegatu badira zerbitzua bertaratu gabeko lan modalitatearen bidez eman nahi dutenak, eta antolakuntza administratiboarekin loturiko arrazoiengatik eta baliabiderik ez izateagatik, denei ezin bazaie eman lan modalitate horretan aritzeko baimena, eta gainera, txandakatzeko aukerak eta interesatuen eta Udaren arteko akordiorako aukerak agorturik badaude, honako gorabehera hauei emango zaie lehentasuna, ondoko baremo honen arabera:

- a) Enplegatu publikoaren osasunarekin loturiko alderdiak: ezintasun iraunkorrak edo aldi baterakoak.
 - Mugitzeko zailtasunak egiaztatu beharko dituzte, abenduaren 23ko 1971/1999 Errege Dekretuaren 2. eranskin gisa doan baremoko A, B edo C ataletan deskribaturiko egoeraren batean daudela adierazita, edo ez egonda ere, gutxienez 7 puntu eskuratzen badituzte aipaturiko baremo horretako gainerako ataletan jasotako egoeretakoren batean egoteagatik: 3 puntu.
 - Ehuneko 33ko edo handiagoko ezintasun maila aitortua izatea: 2 puntu.
 - Aurreko bi horiek izan ezean, Prebentzio Zerbitzuko Osasuna zaintzeko Unitateak egindako txosten teknikoaren bidez egiaztatzen bada mugikortasunean eragina duen osasun nahasmenduren bat duela, joan-etorriak murrizteak osasuna hobetzen nabarmen lagunduko badu: 2 puntu.
- b) Familia bizitza eta lan bizitza uztartzea: 4 puntu.
 - Legez agindutako zaintza dela-eta, zuzenean bere ardurapean hamabi urtetik beherako umeren bat edo ordaindutako lanik egiten ez duen ezindu fisiko, psikiko edo sentsozialen bat edo gaixotasun larri eta luzea duen ahaideren bat izatea berekin bizi dena.
 - Bigarren gradura arteko odolkidetasuneko zein ezkontza- ahaidetasuneko senideak zaindu behar izatea edo, berarekin batera bizitzeagatik urrunagoko graduako senitartekorik zaindu behar izatea, bai mugitzeko arazoak izateagatik, bai osasun- txostenaren bitartez egiaztatutako gaixotasun larria eta jarraitua jasateagatik.
- c) Genero indarkeriaren biktima diren enplegatu publikoak: 4 puntu.
- d) Bizilekutik lantokira joateko distantzia eta denbora luzea egin beharra, edo distantzia hori egiteko garraio publikoko zerbitzuak eskuratzea zaila izatea:
 - 1,5 punturekin baloratuko da distantzia hori 50 kilometrotik gorakoa izatea edo lantokira garraio publikoan joateko desplazamendua bi orduetik gorakoa izatea, joan eta etortzeko desplazamenduetarako biak.
 - Aurreko paragrafoan aurreikusitakoei beste 0,5 puntu gehituko zaizkie distantzia hori 80 kilometrotik gorakoa bada edo lantokira garraio publikoan joateko desplazamendua hiru orduetik gorakoa bada, joan eta etortzeko desplazamenduetarako biak.



- e) Lanpostuarekin zerikusia duten ikasketak egiten aritzea, baldin eta egiten ari den zentroa eskatzailearen helbidetik hurbilago badago lantokitik baino, eta prestakuntzaren ordutegiak lan ordutegiekin bat etortzeko zailtasunak dituela egiaztatzen duenean: 2 puntu.
 - f) Lanpostuarekin zerikusirik ez duten ikasketa arautuak egitea: puntu 1.
2. Eskariarekin batera, artikulua honen lehen puntuan jasotako gorabeherak egiaztatzen dituzten agiriak ere aurkeztu beharko dira.
3. Puntuaketa berdinketarik gertatuz gero, baremoan adierazitako hurrenkeraren arabera baremoaren atal bakoitzean puntu gehien lortu dituenari emango zaio telelanean aritzeko baimena. Berdinketak bere horretan jarraitzen badu, bi irizpide hauek erabiliko dira, hurrenkera honekin: lehena, zeinek duen antzintasun handiagoa lanpostuan, eta bigarrena, zeinek duen antzintasun handiagoa Administrazioan.

7. artikulua. — Baimena ukatzeko arrazoiak

1. Honako hauek izango dira zerbitzua bertaratu gabeko modalitatean emateko eskariak ezesteko arrazoiak:
- a) Udal enplegatuak ez betetzea araudi honetako 4. artikuluan aipatzen diren baldintzak.
 - b) Zerbitzuaren beharrak behar bezala beteta ez geratzea, eskatzailea atxikita dagoen organoaren txostenak hala egiaztatzen badu.
 - c) Azpiegitura teknologikoen mugak eta telelaneko lekuan konektibitatea bermatu ezina, eta biak ere Informatika Arloaren txostenean egiaztatuta behar dira.
 - d) Telelanaren aldien arteko gutxieneko tartea, 8.1 artikuluan ezarria, igaro ez izana, artikulua horretan ezarritako salbuespenarekin.
 - e) Antolakuntzako arrazoiak, behar bezala egiaztatuta.
 - f) Enplegatuak ez betetzea telelaneko aurreko aldiaren ezarritako helburuak, bere arduradunaren txostenaren bidez egiaztatuta.
2. 1. atalean aipatutako arrazoietakoren bat gertatzen dela egiaztatzen bada, Langileria Saileko ordezkariak emango du, Langileria Saileko arduradunak beharrezko txostena egin ondoren, telelanean aritzeko eskaria ezesten duen ebazpen arrazoitua.

8. artikulua. — Telelanaren iraupena eta asteko lanaldiaren banaketa

1. Giza Baliabideen Ordezkaritzak zehaztuko du urtero zerbitzua bertaratu gabeko modalitatean emateko garaia edo aldia zein izango den; hala ere, gerta liteke araudi honen 5.5 artikuluan ezarritakoaren arabera egindako deialdian zehaztea hori.
- Telelanak eragin ez dezan bertaratze modalitatean itzultzeak enplegatuari kalterik ez ekartzeko moduko sustrai galtzea edo ohitura eta errutina aldatzea, honako denboramuga hauek ezarriko dira:
- a) Baimenduko den telelaneko denboraldi jarraituaren iraupena urtebetekoa izango da gehienez betiere.
 - b) Aurrekoari kalterik egin gabe, eta interesa duen enplegatuak eskatuta, bertaratu gabeko lana egiteko baimena luzatu ahal izango da, baldin eta ukituriko arloak aurkakorik esaten ez badu, hasieran emandakoaren iraupen-aldi berdinetan eta egoera horretan hiru urte jarrai baino gehiago ematen ez badira betiere.
 - c) Nolanahi ere, Langileria Sailak txostena egin ahal izango du baimena ez luzatzeko aholkatuz, egiaztatzen bada arlo bereko hirugarren langile batzuek eskubide handiagoa dutela bertaratu gabeko lan modalitatean aritzeko baimena izateko, eskatutako luzapen hori emanez gero kanpoan geratuko bailirateke.
 - d) Bertaratu gabeko lanerako baimena jarraian izateko gehienezko denbora bukatu ondoren, egon daitezkeen luzapen guztiak barne, langileak bere lanean hasi beharko du nahitaez bertaratutako modalitatean. Hala ere, bertaratu gabeko modalitateko beste baimen bat eskatu ahal izango du une horretatik aurrera. Egindako arloko zuzendaritzak uste badu sustraiak galtzeko halako arriskuren



bat dagoela bestela egiten bada, eskaera berri horren baimena lotu ahal izango da telelaneko denboraldien artean gutxieneko denboraldi batean bertaratutako modalitatean egotearekin, gehienez ere urte bateko iraupenarekin.

2. Oro har, asteko lanaldia honela banatuko da: astean gehienez egun bitan bertaratu gabeko modalitatean eman ahalko da zerbitzua, telelanaren bidez, eta hiru egun bertaratutako modalitatean egin beharko dira, ohiko lanaldiaren eta ordutegiaren arabera.

3. 1.4 artikuluan, 4.1.a) artikuluan eta 5. artikuluko 7., 8 eta 9. ataletan zehaztutako salbuespen kasuetan, telelanaren modalitatea asteko egun guztietara arte luzatu ahal izango da, kasuan kasu, eta egoerak eskatzen duen beharrianaren arabera.

4. Bertaratu gabeko modalitateko egunak zerbitzuko arduradunarekin adostu beharko dira.

Salbuespen gisa, zerbitzua emateko beharrak direla-eta, enplegatu eskatzailea atxikita dagoen arloaren txostenetan salbuespena egiaztatuz geratzen bada, lanaldiaren banaketa desberdinak onartu ahal izango dira, urtea aintzat hartuta, aurrez aurreko lanaldien eta bertaratu gabekoen artean proportzionaltasun berdina badago, hirugarren atalean ezarritako prozedura beteta eta Langileria Sailean horretarako ezarritako irizpideei jarraiki.

5. Ezin izango da, inolaz ere, eguneko lanaldia zatitu zati bakoitza modalitate bertaratutako modalitatean eta bertaratu gabekoan emateko, ez bada aurretik zehaztutako salbuespenezko egoerek zatitzea eskatzen dutela.

6. Telelanaren denboraldia hasteko eta bukatzeko egunak, artikuluko honen 1. ataleko denbora-mugak errespetatuz, eta asteko lanaldiaren banaketa enplegatua atxikita dagoen arloaren eta enplegatuaren beraren artean zehaztuko dira, zerbitzuaren beharrak eta telelana egiten ari den langilearen nahiak kontuan harturik.

Langileria Sailak onartuko ditu alderdi horiek guztiak, baimena emateko ebazpenean bertan edo geroago, betiere zerbitzua bertaratu gabeko modalitatean ematen hasi baino lehen.

Adostasunik ez bada, Langileria Saileko ordezkariak hartuko du erabakia, Langileria teknikariak horretarako ezarritako irizpideei jarraiki.

7. Enplegatuengan edo zerbitzuaren beharretan eragiten duten gerora agertutako gorabeherengatik, asteko lanaldiaren banaketa aldatu ahal izango da, bertaratutako modalitatearen eta bertaratu gabeko modalitatearen artean, edo/eta telelaneko asteko egun kopurua aldi baterako murriztu ahal izango da, eta horretarako, ados jarri beharko dira enplegatua atxikita dagoen arloa eta enplegatua bera, aurreko atalean ezarritako prozedurari jarraiki. Telelanaren egunen kopurua areagotzea dakarten aldagetek artikuluko honen bigarren atalean jasotako mugak beteko dituzte, eta aurreko atalean aurreikusitako akordioa beharko dute, salbuespenak salbuespen.

8. Telelanak ez dakar, bere ezaugarriengatik, dedikazio berezirik, ez ordutegiaren aldetik ez lanaldiaren aldetik; lanaldia eta ohiko ordutegia malguagoak izatea baizik ez dakar. Nolanahi ere, aukeran dago lana egiteko gutxieneko interkonexio-aldiak ezartzea, edo interkonexio-aldi horiek eguneko ordu tarte jakin batean edo batzuetan izateko modua ezartzea, baldin eta, zerbitzuaren beharrak direla-eta, erakundearen eta telelangilearen arteko komunikazioa beharrezkoa bada.

9. Bertaratu gabeko modalitatea baimenduta daukaten langileek arlo publikoan bigarren jarduera batean aritzeko bateragarritasunerako baimen eskaria aurkezten badute, ordutegiaren bateragarritasuna baloratzerakoan, bertaratutako modalitatean egiten duen lanaldia joko da interesdunaren lanalditzat. Eskatutako bateragarritasunaren baimen hori emateko, baliogabetuta geratuko litzateke, betiere, bertaratu gabeko modalitatearen bidez lan egiteko baimena.

9. artikulua. — Helburuak, zereginak eta emaitzak zehaztea

1. Bertaratu gabeko modalitatean emandako lanaldian zein lan bete behar diren eta zein emaitza lortu behar diren zehazteko, langileak eta dagokion arloko arduradunak adostu beharko dute. Telelanak irauten duen bitartean, aldian-aldian egingo dira horre-



lako akordioak, eta dagozkien agirietan jasoko. Nolanahi ere, eragindako arloak edo zerbitzuak idatzi behar duen telelanaren aldeko txostenean jasoko da helburuen lehen zehaztapena, araudi honen 5.2 artikuluan adierazten den bezala.

2. Adostasunik ez bada, telelaneko enplegatua atxikita dagoen arloko arduradunak hartuko du erabakia, hala badagokio, Langileria Sailak horretarako ezarritako irizpideei jarraiki.

10. artikulua.— *Eskubideak eta betebeharrak*

1. Bertaratu gabeko modalitatean diharduten udal enplegatuek Bermeoko Udalaren zerbitzuan ari diren gainerako funtzionarioen eta langile lan- kontratudunen eskubide eta betebehar berberak izango dituzte.

2. Hala ere, zerbitzuak bertaratu gabeko modalitatean ematen dituzten langileek, lan zentro jakin batean langilearen presentzia ezinbestean behar duten prestakuntza ekintzetan parte hartzeko eskubidea mugatua ikusi ahal izango dute. Kasu horietan Langileria batzordeak erabaki ahal izango du lehentasuna beste langile batzuek izatea, lanpostu berdin-berdina izanik, beren lana bertaratutako modalitatearen bidez egiten ari direnean.

3. Lana bertaratu gabeko modalitatearen bidez egiteko onartutako lanaldiak eta ordutegiek, dagokion lanpostuko osagarri berezian baloratuak izan diren lan baldintzei edo ordutegi nekezei buruzko zenbait gorabehera desagertzea dakartenean, langileak aldi batean osagarri hori jasotzekari utzi behar izatea ekar lezake baimen erabakiak, lanaren prestazio baldintza berri horiek indarrean dauden denboraldian, hain zuzen ere.

4. Bertaratu gabeko lanaren prestazio modalitatea onartzeak ezin izango du lanpostuaren titularraren egiazko dedikazioa murriztu, faktore hori berariaz jasoa dagoenean titular horrek betetzen duen lanpostuaren balorazioan, eta dedikazio hori bertaratu gabeko formulen bidez gauzatzeko aukerari kalterik egin gabe betiere.

11. artikulua.— *Aldi baterako etetea*

1. Bertaratu gabeko modalitatean jarduteko baimena sasoi batez indargabetu ahal izango da, enplegatuarengan edo zerbitzuaren beharretan eragiten duten gerora sortutako arrazoiengatik.

2. Espediente hori tramitatzera, audientzia emango zaie eragindako pertsonari eta langileen ordezkari. Behin arrazoiak egiaztatu ondoren, Langileria Saileko ordezkariak baimena indargabetzeko ebazpen arrazoitua emango du, eta ebazpen horretan, baliogabetze-epea adieraziko du.

12. artikulua.— *Udalak baimena ezeztatzea eta langileak telelaneko aldia amaitutzat ematea*

1. Zerbitzua bertaratu gabeko modalitatean emateko baimena indarrrik gabe geratu ahal izango da, honako arrazoi hauek direla medio:

- a) Zerbitzuaren beharrengatik.
- b) Ezarritako helburuak ez betetzeagatik. Langilea atxikita dagoen arloko arduradunak egindako txostenaren bidez egiaztatuko da hori.
- c) Gerora agertutako arrazoiengatik, baimen ebazpena ematea eragin zuten baldintza eta eskakizunetan funtsezko aldaketak izan direlako.
- d) Pertsona interesatuak uko egiteagatik. Utzi nahi den eguna baino gutxienez astebete lehenago eman beharko du horren berri. Nolanahi ere, kasu berezietan, eta hirugarren pertsonen kalte eragiten bazaie, haren ondorioak atzeratzeko aukerari kalterik egin gabe.

2. Udalak eskatuta hasitako indargabetze prozedura tramitatzera, audientzia emango zaie eragindako pertsonari eta langileen ordezkari. Atal honetan aipatutako arrazoietakoren bat gertatzen dela egiaztatuz gero, Langileria Saileko ordezkariak zerbitzua bertaratu gabeko modalitatean emateko baimena indargabetzeko ebazpen arrazoitua emango du, eta eragina zein egunetik aurrera izango duen adieraziko du hartan.

**13. artikulua.— Bertaratutako modalitatera itzultzea**

Zerbitzua bertaratu gabeko modalitatean emateko aldia amaitzen denean, enplegatu bertaratutako modalitatera itzuliko da, zerbitzua telelanaren bidez ematen hasi aurreko egunean zeukan lanaldi erregimen berdinarekin.

14. artikulua.— Lan ekipamendua

1. Zerbitzuak bertaratu gabeko modalitatean ematen dituzten pertsonen interneteko konexioko linea eduki behar dute, erakundeak zehaztutako ezaugarriak betetzen dituen, eta baita telefono bidez komunikatzeko linea bat ere hura udalak ematen ez dienean.

2. Informatika Zerbitzuak hala agintzen badu bere txostenetan, udal sarerako sarbidea konexioko kanal seguru baten bitartez egingo da, eta haren ezaugarriak eta linea gaitasuna langile bakoitzaren egiazko beharretara egokituko dira.

3. Telelana egiten dutenek telefono bidezko arreta-linea izango dute, zerbitzuari buruzko gorabeherak jasoko dituen (egungo erabiltzaileen euskarri zerbitzua), bulego ordutegi finkoaren barnean. Ordenagailu eramangarriarekin edo telefonoarekin lotutako gorabeherak konpontzeko laguntza teknikoak, aurrez aurreko esku hartze teknika eskatzen badu, bertaratutako lanaldi egunetan emango da.

15. artikulua.— Datu pertsonalak babestea

Bertaratu gabeko modalitatean zerbitzua ematean, telelangileek datu pertsonalak babesteari buruzko legeria beteko dute eta behar besteko zuhertasunez ibiliko dituzte eza gutzen dituzten gaiak, bertaratutako modalitateko lanak garatzen dituztenean bezalaxe.

16. artikulua.— Laneko arriskuen prebentzioa

1. Udaleko Laneko Arriskuen Prebentzioko Zerbitzuak telelan modalitatean ari diren langileei emango die beren jardueraren arriskuen ebaluazioa, eta baita segurtasun eta laneko osasun alorretako prestakuntza eta informazioa ere, lan-arriskurik gerta ez dadin, edo, gertatuz gero, ahalik eta gutxien izan daitezen eta behar diren prebentziozko neurriak aplikatu daitezen.

2. Era berean, langile horiek prestakuntza saio batera joan beharko dute, eta hantxe adieraziko zaie nola egokitu behar duten administrazio bulegoetatik kanpo duten lanpostua, eta, era berean, argibideak emango zaizkie datuak ikusteko pantailak dituzten lanpostuetan hartu beharreko segurtasun eta ergonomia neurriei buruz.

3. Telelan modalitatean ari diren enplegatuek beren lanean eta beren lanpostuaren diseinuan aplikatu beharko dituzte arriskuen ebaluazioan aurreikusitako neurriak, eta baita Prebentzio Zerbitzuan emandako prestakuntza eta informazioa ere. Hala ere, Prebentzio Zerbitzuak laguntza eta telefono bidezko aholkularitza emango die behar dutenean.

4. Era berean, zerbitzuak bertaratu gabeko modalitatearen bidez ematen dituzten pertsonen Prebentzio Zerbitzuari eskatu ahal izango diote, orobat, beren telelaneko lantokia aztertzeko. Eskari horri baiezkotza emango zaio, baldin eta Prebentzio Zerbitzuak irizten badio etxean bertan azterketa hori egitea beharrezkoa dela.

5. Prebentzio Zerbitzuak lantokian neurri zuzentzaileak hartzea gomendatzen badu, telelangileek hartu beharko dute neurri horiek ezartzeko ardura, Enplegatu Publikoaren Oinarriko Estatutuaren Testu Bateginaren 54.9 artikulua aurreikusitakoaren arabera, urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua.

17. artikulua.— Prestakuntza

1. Udalak, urteko prestakuntza planetan, prestakuntza-saioak antolatuko ditu zerbitzua bertaratu gabeko modalitatean emateko baimena eman zaien langileentzat, aplikazio informatikoetara kanal telematikoaren bidez sartzeko sistemen erabilerari buruz, eta beharrezkotzat hartzen bada oinarriko prestakuntza emango du halaber, jakiteko lanpostuan osasuna nola zaindu, lan-arriskuen prebentzioa nola gauzatu eta datu pertsonalak nola babestu.



2. Prestakuntza planek hala aurreikusten dutenean, prestakuntza emango zaie zerbitzuak bertaratu gabeko modalitatearen bidez ematen dituzten langileei nahiz haien lana ikuskatzeko eginkizuna duten pertsoneri, helburuak nola idatzi, kudeatu eta ebaluatu jakiteko, eta baita adierazleak prestatzeari buruz eta espero diren emaitzei buruz ere.

3. Telelaneko ondorengo denboraldietan, aurretik hartutako prestakuntza hartuko da kontuan, araudi honen 4.1 f) artikuluan jasotako baldintza betetzen den haztatzeari begira.

18. artikulua.— Araudi honen xedapenen interpretazioa

Araudi honetan jasotako xedapenen interpretazioarekin loturiko zalantzak sortzen direnean, udalean osatutako negoziazio mahaian aztertuko dira.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

Lehenengo Xedapen Gehigarria.— Telelanaren modalitatearen garapenaren jarraipena

Bermeoko Udaleko Langileria Sailak azterketak eta analisiak egingo ditu zerbitzua telelaneko modalitatean egiteko aukera nola eman eta telelana nola garatu zehazteko; horretarako, beharrezkoa den informazioa jasoko du, eta hobetzeko neurriak ere proposatuko ditu, azterketa eta analisi horien ondorioetan oinarrituta.

Hobetzeko neurri horiek, beharrezko batzordeetan langileen ordezkariekin eztabai-datu ondoren, aintzat hartuko dira urteko lan egutegiak onartzeko orduan, eta baita prestatuntza planak egiteari begira ere.

Bigarren Xedapen Gehigarria.— Indarrean jartzea eta indarraldia

Araudia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean bertan jarriko da indarrean, eta mugagabea izango da haren indarraldia. Hala eta guztiz ere, egin beharrekoko aldaketak egingo dira akordio honetako xedapenak eguneratzeko akordio berri bat onartzen bada.